



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/12/28

Batzar Nagusietako Osokoak 2018rako Bizkaiko Aurrekontuak onetsi ditu Gernikan

Batzarretako Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen aldeko botoakaz, Talde Mistoko ordezkari bakarraren absentsinoagaz eta EH Bildu, Podemos Bizkaia eta Bizkaiko Talde Popularreko 20 batzarkideen kontrako botoakaz, Batzar Nagusietako Osokoak, Lurralde Historikoko 2018rako Aurrekontu Orokorren Foru Araua onetsi dau gaur goizean. Eztabaidea hiru orduz luzatu da, eta ezuste barik amaitu da, Batzordean egin ziran eztabaidatan aurretik ezarritako posizionamenduak kontuan izanda.

Enplegua sortzea, ekonomia berpiztea, zerbitzu publikoei eustea eta txartoen dagozanakaz alkartasuna dira, Foru Gobernua osotzen daberen taldeen esanetan, aurkeztutako Aurrekontu egitasmoaren lau oinarriak.

Jon Atutxa Euzko Abertzaleak taldeko bozeroalearen berbetan, kontuak “orekatuak” dira. Horrez gain, eta Unai Rementeria Bizkaiko Ahalduen Nagusiaren berba batzuk aitatzuz, esan dau beharrezkoa dala “behar ez danean partidak larregi ez finantzatea edo errealidadetik oso azpian dagozan aurrekontuak ez egitea”. Gainera, bere taldeak “pertsonek, gizarte eta lurralde arloetako kohesinoaren eta jarduera ekonomikoaren aldeko apustua egiten daberen neurri guztiak bultzatzen jarraituko dauela” be esan dau. “Eta kontu handiz, baina baikortasunez, egingo dogu”.

Carlos Totorika Euskal Sozialistak taldeko batzarkideak, bere aldetik, “desbardinaren arteko adostasunaren” aldeko apustua egin dabela esan dau, “akordio anitzaren, alkarrizketaren eta lankidetzaren formula finkatzeko” asmoz, “erronka barriei nasaitasunez aurre egin ahal izateko”. Batzarkide sozialistaren eretziz, oposizio taldeek aurkeztu dituen zuzenketa-eskeak “maximalistak” dira, gaur aurkeztu diran kontuakaz kontrajarrita, kontu horreek “konponbideak jarten dituelako mahai gainean, datorren urteko egun honeetan, langabezia gitxiagoz, kotizazio gehiagoz, prekariedade gitxiagoz eta bardintasun handiagoz berba egin daigun”.

Igaz gertatu zan moduan, Talde Mistoko bozeroalea abstenidu egin da bozketan, eta Batzarretako talde guztien arteko adostasun maila altuagoaren aldeko apustua egin dau.

Oposizioaren aldean, Podemos Bizkaia, EH Bildu eta PP taldeek Foru Gobernu taldeak kritikatu ditue, Javier Ruiz Talde Popularreko bozeroalearen eretziz, akordioak lortzeko jarrera “hutsa” erakutsi dabelako.

PPko batzarkideak “diru-bilketaren handitzea” azpimarratu dau, baina, hori “ez da gastu handiagoan islatu”. Horrek argi eta garbi erakusten dau “banaketa eredu hori ez dala aldatuko hemendik legezaldia bukatzen dan arte”. Kontuetan zeharkako politikei, pertsona nagusiei, autoenplegurako politikei eta enplegarritasun planei emoten jaken laguntza txikia be azpimarratu dau Javier Ruizek.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Asun Merinero Podemos Bizkaia taldeko bozeroaleak, “eskubide sozialak salgai jartea” eta “oinarrizko zerbitzu publikoak, gure pertsona nagusien arreteta, adibidez, esku pribaduen esku jartea” leporatu deutse Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeei.

Arantza Urkaregi EH Bilduko, zuzenketa-eske transakzionalik onetsi ez dauen talde bakarreko, bozeroaleak, zergen igoerea eta zerga horreek biltzeko erabilten dan prozedura kritikau ditu, eta baita Udaletara zuzendutako finantzaketa urria be. Oposizinoko gainerako taldeek esan daben moduan, gaur onetsi diran kontuetan “pertsonak ez dirala lehentasuna” nabarmendu dau Urkaregik.

FORU ARAUAREN IBILPIDEA

Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernuak, 7.813 milioi euro jasoten ebazan aurreproiektua aurkeztu eban joan dan urriaren 27an, bukatzen dagon urte honetakoa baino %5,66 gehiago (418,5 milioi euro). 6.211 milioi beste administrazio batzuek (Eusko Jaurlaritza, Udalak eta Estauko Administrazioa, kupoaren bitartez) konprometiduta dagozala kontuan izanda, Bizkaiko Foru Aldundiak 1.602 milioi euro kudeatuko leuez zuzenean. Horreetatik 1.193 (2017an baino %2,4 gehiago), Aldundiko zortzi sailen esku egongo litzatekez, foru erakundearen esku dagozan beharginen gastu finkoei zuzendutako atala kendu eta gero.

Joan dan abenduaren 14an, Batzar Nagusietako Osokoak ez ebazan onetsi EH Bildu eta Podemos taldeek aurrekontu proiektuaren aurrean aurkeztutako osoko hiru zuzenketa-eske, eta horren ostean batzordean eztabaidatu ziran taldeek aurkeztutako 633 zuzenketa-eske parzialak: Podemos Bizkaiak 258 aurkeztu ebazan, EH Bilduk 159, Talde Popularrak 143 eta Talde Mistoak 67. Foru Gobernua eusten daben talde biek, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek, aurkeztu ebezan sei proposamenez aparte.

Abenduaren 18tik 21era, Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak, Bizkaiko Foru Aldundiko zortzi sailtako aurreikuspen ekonomikoaren aurrean aurkeztutako zuzenketa-eske parzial guztiak eztabaidatu ebazan. Horreetako lautuan (Gizarte Ekintza, Herri Administrazio eta Erakunde Harremanak, Ogasun eta Finantzak eta Ekonomia eta Lurralde Garapena) hasierako proposamenari eutsi jakon, eta beste lauetan (Euskara eta Kultura, Garraioa, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa, Iraunkortasun eta Ingurune Naturala eta Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna), 12 zuzenketa-eske onetsi ziran. Onetsitako zuzenketa-eske horreek ia milioi bat euro ingurutan igon eben aurrekontua.

Zehatzago esanez, Batzordeko eztabaidatik urtendako aurrekontu igoerea 979.000 eurokoa izan zan, hemen azaltzen dan moduan banakatuta:

- 479.000 euro Euskara eta Kultura sailerako, sei zuzenketa-eske onetsi ziralako, Balmasedako La Encartada Museoaren, Bilboko Errekalde Aretoaren, Arte Eder Museoaren eta udako eta eskola kiroleko hainbat jardueren gainekoak.
- 390.000 euro Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailerako, hainbat erakunderen eta programaren gaineko lau zuzenketa-eske dirala eta.
- 60.000 euro Iraunkortasun eta Ingurune Natural sailerako, *Urdaibai Bird Center* txorien behatokia diruz laguntzeko zuzenketa-eske bat onetsi eta gero.
- 50.000 euro Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesio sailerako, Bizkaiko Garraio Partzuergorako azterlanak egiteko zuzkidura gehigarriari esker.

Legealdi honen hasieratik Aldundiko Gobernua eusten daben Euzko Abertzaleak taldearen 23 jarlekuetan eta Euskal Sozialistak taldearen seietan oinarritutako gehiengoaren laguntzagaz,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Batzar Nagusiek aurrekontuen gaineko proiektua berretsi dabe, batzordean egindako eztabaidatik urten eban moduan. Aurrekontuen aurreko eztabaidan gertatu zan moduan, Talde Mistoko ordezkari bakarra abstenidu egin da bozketan, eta EH Bilduko 11 ordezkariak, Podemos Bizkaiako seiek eta Talde Popularreko hiruek proposamenaren kontrako botoa emon dabe.

Bizkaiko Lurraldeko Aurrekontu Orokorren Foru Arau Proiektuaren onespena, emaitza berbera izan daben bederatzi bozketatan gauzatu da (aldeko 29, kontrako 20 eta abstentzino bakarra), Aldundia osotzen daben zortzi sailtako bakotzeko eta Testu Artikulauko kontuen gainekoak.

Batzar Nagusietako Osokoan Bizkaiko kontuak onetsi eta gero, Bizkaiko Foru Aldundiak daukan aurrekontua ondoren azaltzen dan moduan geratuko da:

- Gizarte Ekintza Saila
 - 514.049.022 euro (2017an baino 22,40 milioi euro gehiago, +%4,56)
- Ekonomia eta Lurralde Garapen Saila
 - 286.227.312 euro (2017an baino 13,11 milioi euro gehiago, +%4,80)
- Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesio Saila
 - 140.411.943 euro (2017an baino 14,82 milioi euro gitxiago, -%9,54)
- Ogasun eta Finantza Saila
 - 124.437.835 euro (2017an baino 3,73 milioi euro gehiago, +%3,09)
- Iraunkortasun eta Ingurune Natural Saila
 - 109.725.227 euro (2017an baino 5,49 milioi euro gitxiago, -%4,76)
- Herri Administrazio eta Erakunde Harreman Saila
 - 109.426.726 euro (2017an baino 11,53 milioi euro gehiago, +%11,79)
- Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Saila
 - 58.569.051 euro (2017an baino 1,87 milioi euro gehiago, +%3,31)
- Euskara eta Kultura Saila
 - 57.031.438 euro (2017an baino 2,03 milioi euro gehiago, +%3,70)

- ❖ Zor Publikoa
 - 202.197.290 euro (2017an baino 6,62 milioi euro gehiago, +%3,39)
- ❖ Erakundeen konpromisoak
 - 5.351.536.333 euro (2017an baino 344,23 milioi euro gehiago, +%6,87)
- ❖ Udal finantzaketea
 - 850.695.100 euro (2017an baino 32,88 milioi euro gehiago, +%4,02)

NOTA DE PRENSA
28/12/2017

El Pleno de las Juntas Generales aprueba en Gernika el Presupuesto de Bizkaia para 2018

Con los 29 votos a favor correspondientes a los grupos junteros Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, la abstención del único representante del Grupo Mixto y la oposición de los 20 apoderados de EH Bildu, Podemos Bizkaia y Grupo Popular Vizcaíno, el Pleno de las Juntas



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Generales ha aprobado esta mañana la Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico para 2018. El debate se ha prolongado a lo largo de tres horas, y ha concluido sin sorpresas respecto a los posicionamientos previamente establecidos en los debates en Comisión.

La creación de empleo, la reactivación económica, el sostenimiento de los servicios públicos y la solidaridad con quienes peor lo están pasando son, a juicio de los grupos que sustentan el Gobierno Foral, los cuatro pilares que amparan el proyecto de Presupuesto presentado.

El portavoz del grupo de Nacionalistas Vascos, Jon Atutxa, ha definido estas cuentas como “equilibradas”. Asimismo, y haciendo referencia a unas palabras del Diputado General de Bizkaia, Unai Rementeria, ha resaltado la necesidad de “no sobrefinanciar innecesariamente partidas o presupuestarlas muy por debajo de la realidad”. Además ha afirmado que su grupo “seguirá apoyando todas las medidas que apuesten por las personas, por la cohesión social y territorial, y la actividad económica. Y, lo haremos desde la cautela y el optimismo”.

Por su parte, el juntero del grupo de Socialistas Vascos, Carlos Totorika ha asegurado apostar por “el acuerdo entre diferentes” con el fin “afianzar la fórmula contrastada del acuerdo plural, del diálogo y de la colaboración para afrontar con serenidad los nuevos retos”. El juntero socialista ha tildado de “maximalistas” las enmiendas presentadas por los grupos oponentes en contraposición a las cuentas hoy presentadas que “ponen soluciones encima de la mesa para que el año que viene, por estas fechas, hablemos de menos paro, más cotizaciones, menos precariedad y más igualdad”.

Al igual que sucedió el pasado año, el portavoz del Grupo Mixto se ha abstenido en la votación y ha apostado por un mayor grado de consenso entre todos los grupos de la Cámara.

En el lado de oposición, Podemos Bizkaia, EH Bildu y PP han criticado a los grupos del Gobierno Foral su –en palabras del portavoz del Grupo Popular, Javier Ruiz- “nula” disposición a pactar.

El juntero del PP ha destacado el “incremento de la recaudación” que sin embargo, “no se traduce en un mayor gasto”, siendo esto reflejo de que “ese modelo de reparto no se va a cambiar de aquí a final de legislatura”. Javier Ruiz también ha puesto el acento en el escaso apoyo de las cuentas a las políticas transversales, a las personas mayores, políticas de autoempleo y planes de empleabilidad.

La portavoz de Podemos Bizkaia, Asun Merinero, ha acusado a los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos de “poner en venta los derechos sociales” y “externalizar en manos privadas servicios públicos esenciales como la atención a nuestras personas mayores”.

Por su parte la portavoz de EH Bildu, Arantza Urkaregi, único grupo que no ha aceptado enmiendas transaccionadas, ha criticado tanto la subida como el procedimiento que se utiliza para recolectar los impuestos, además de la escasa financiación destinada a los ayuntamientos. Siguiendo con la línea de los grupos de la oposición, Urkaregi ha hecho hincapié en que en las cuentas hoy aprobadas “las personas no son la prioridad”.

TRAYECTORIA DE LA NORMA FORAL



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

El Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia presentó el pasado 27 de octubre un anteproyecto que contemplaba un montante total de 7.813,2 millones de euros, un 5,66% más (418,5 millones de euros) de lo presupuestado en el año que concluye. Teniendo en cuenta que 6.211 millones corresponden a los comprometidos con otras administraciones (Gobierno Vasco, ayuntamientos y Administración del Estado a través del cupo), el ente foral vizcaíno gestionaría directamente 1.602 millones de euros, de los que 1.193 (el 2,4% más que en 2017) quedarían a disposición de los ocho departamentos de la Diputación, una vez descontado el capítulo destinado a los gastos fijos del personal adscrito al ente foral.

El pasado 14 de diciembre, el Pleno de las Juntas Generales rechazó tres enmiendas a la totalidad del proyecto de presupuestos presentadas por EH Bildu y Podemos, dándose paso a la discusión en comisión de las 633 enmiendas parciales presentadas por los diversos grupos: 258 por Podemos Bizkaia, 159 por EH Bildu, 143 por el Grupo Popular y 67 por el Grupo Mixto, además de las seis propuestas por las dos formaciones que sustentan la labor del Gobierno foral, los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos.

Entre el 18 y el 21 de diciembre, la Comisión de Economía y Hacienda de las Juntas Generales debatió todas las enmiendas parciales presentadas en la previsión económica para cada uno de los ocho departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia. En cuatro de ellos (Acción Social, Administración Pública y Relaciones Institucionales, Hacienda y Finanzas, y Desarrollo Económico y Territorial) se mantuvo la propuesta inicial, mientras que otros cuatro (Euskera y Cultura, Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Sostenibilidad y Medio Natural, y Empleo, Inclusión Social e Igualdad) aprobaron un total de 12 enmiendas que modificaban al alza el presupuesto por un valor cercano al millón de euros.

En concreto, el incremento presupuestario salido del debate en Comisión fue de 979.000 euros, desglosados de la siguiente forma:

- 479.000 para el Departamento de Euskera y Cultura, derivados de la aprobación de seis enmiendas que afectaron al Museo La Encartada de Balmaseda, la Sala Rekalde de Bilbao, Museo de Bellas Artes y actividades estivales y de deporte escolar, entre otras.
- 390.000 euros para el Departamento de Empleo, Inserción Social e Igualdad, como consecuencia de cuatro enmiendas referidas a diversas entidades y programas.
- 60.000 euros para el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural, tras la aprobación de una enmienda para subvencionar el observatorio ornitológico *Urdaibai Bird Center*.
- 50.000 euros para el Departamento de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, gracias a una dotación adicional destinada a labores de estudio para el Consorcio de Transportes de Bizkaia.

Con el apoyo de una mayoría sustentada en los 23 escaños del grupo Nacionalistas Vascos y los seis de Socialistas Vascos, que mantiene el Gobierno de la Diputación desde el comienzo de la presente legislatura, las Juntas Generales han ratificado el proyecto presupuestario tal como salió del debate en comisión. Al igual que sucedió en el anterior debate presupuestario, el único representante del Grupo Mixto se ha abstenido en la votación, mientras que el sufragio ha sido en contra de la propuesta en el caso de los 11 representantes de EH Bildu, los seis de Podemos Bizkaia y los tres del Grupo Popular.

La aprobación del Proyecto de Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio de Bizkaia se ha concretado en nueve votaciones de idéntico resultado (29 a favor, 20 en contra y una



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

abstención), referidas a las cuentas de cada uno de los ocho departamentos de la Diputación y al Texto Articulado.

Tras la aprobación de las cuentas de Bizkaia en el Pleno de las Juntas Generales, el presupuesto asignado a la Diputación Foral de Bizkaia ha quedado distribuido de esta forma:

- Departamento de Acción Social
 - 514.049.022 euros (22,40 millones más que en 2017, +4,56%)
- Departamento de Desarrollo Económico y Territorial
 - 286.227.312 euros (13,11 millones más que en 2017, +4,80%)
- Departamento de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio
 - 140.411.943 euros (14,82 millones menos que en 2017, -9,54%)
- Departamento de Hacienda y Finanzas
 - 124.437.835 euros (3,73 millones más que en 2017, +3,09%)
- Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural
 - 109.725.227 euros (5,49 millones menos que en 2017, -4,76%)
- Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales
 - 109.426.726 euros (11,53 millones más que en 2017, +11,79%)
- Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad
 - 58.569.051 euros (1,87 millones más que en 2017, +3,31%)
- Departamento de Euskera y Cultura
 - 57.031.438 euros (2,03 millones más que en 2017, +3,70%)

- ❖ Deuda Pública
 - 202.197.290 euros (6,62 millones más que en 2017, +3,39%)
- ❖ Compromisos Institucionales
 - 5.351.536.333 euros (344,23 millones más que en 2017, +6,87%)
- ❖ Financiación Municipal
 - 850.695.100 euros (32,88 millones más que en 2017, +4,02%)